


## 7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

**Funtsezko elementuak** dira enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta **diru-sarrerak** sortzea.

Gure enpresaren funtsezko baliabideak hauek dira:

→ **BALIABIDE FISIKOAK:** Alde batetik lan egiteko **lokala**, Naroaren garajea izango dena, eta bestetik, **sistema informatikoa**, bertan ordenagailuak daude. Bat gutako bakoitzarentzat, telefonoa ere izango dugu edozein arazotarako eta negozioak egiteko.



→ **BALIABIDE INTELEKTUALAK:** taldekide bakoitzak duen jabego ezagutza izango da:

Haizeak eskuratu dituen **finantza ezagutzak** erabiliko ditu gure enpresako finantza arloak eramateko, Paulak komunikaziorako duen **abilezia** irakasleekin hitz egiterako orduan behar dugun informazioa lortzeko, Naiarak, **marketinean** duen trebetasuna erabiliko du gure enpresa publizitate tresna gisa erabiltzeko eta Naroak **informatika** arloan lan egingo du bere ezagutzagatik arlo honetan.



→ **FINANTZAK**: Hasieran aplikazioa sortzeko eta behar ditugun materialak erosteko gure **aurrezkiak** erabiliko ditugu. Ondoren lortzen ditugun **diru-sarrerekin** finantziatzen joango gara.

